

**BILBO TXIKITXUA, XIX. MENDEKOA**

Begirada zelako, gauzak halako. Begirada garbia izan arren, lauso ageri jaku askotan aurrekoa; distira eta lilura barrik, arruntegi, egunerokoegi. Ahaltsuen margolanak ezartzen dira aurrean, interesak eraginda margoturikoak, baina interes bakoak edo interes gitxikoak. Ez deuskue bihotzean zirririk egiten. Hotz-hotz izten gaitue.

Antzinakoa, ostera, urruntasunaren misterio-aireaz dator, erdi ahazturik eta galzorian danaren liluraz; ganbarako kutxatik berreskuratzen dan argazki zaharra legez da. Lehenagoko bizipenak gozo egiten jakuz, denboraren atzean ezkutaturiko gure bizi zati bat gomutaren bistara ekartzea dalako; gure biografiaren orrialde galduak eta ahaztearen gau ilunean erdi ezereztuak aurrera dakarskuzalako.

Testu batzuk euskarara itzultzean, XIX. mendeko Bilbo txikitxua ikusi dot, “botxoan” erraz-erraz, estura barik, sartzen zana aurkitu dot. Haren arnas hotsa entzun dot; pultsua hartu deusat eta bizi nahirik sumatu dot, hazi eta handitu nahirik; etorkizun oparoa eraikitzeko oinarriak, azpi-egiturak ezarri nahirik.

Bilbon ezartzen da erdigunea, handik alde guztietara kaleak taxutzen diran erdiko plaza balitz legez, eta holan, Bizkai osorantz banatzen dira bideak eta bide-bidean dagozan herrien zertzeladak emoten dira handi-handika; bidaztiaren be-

gientzat erakargarri izan leitekezanak bai behintzat; izan be, zelan edo halan, Bizkai osoa hartzen da kontuan eta Bizkaiko mugez harantz dagozanak be bai, kasu batzuetan.

Hango hainbat pasarte eta zati ekarri nahi neukez *Karmel*-en orrietara.

Bizkaiaren deskripzio orokorra egitean lurraren itxurari eta haren pobretasunari erreparatzen deuta. Lurra bustitzen daben ibai eta errekek agertzen dira. Ibaizabal, Nerbioi, Kadagua izen horreekin datoz, baina txikiagoak *Plentzia (Butroi)*, *Mundaka (Oka)*, *Lekeitio (Lea)*, *Ondarroa (Artibai)* izenez, hau da, ibai horreek hiltzen diran itsas herrien izenez.

*Lurraldearen itxurari jagokonez, ikuspegi malkartsuak, mendien laztasun itzelak, tontorren altuera eta ur-jauzi ikusgarriak zirala-eta, izadiak pobretasun gorrira eta antzutasun ikaragarriara kondenatu nahi ebala zirudian. Baina horri guztiorri gizakiaren lanak eta iraupenak soilik egin abal izan deuta aurre. Ez dogu aztertuko Bizkaiak okupatzen dauan lurraren osaera geodesikoa; gaine-gainetik hauxe bakarrrik esan geinke: gizakiak mendeetan zehar lurrean gordeta dagoan sekretua agertzeko araketak egin arren eta lurrak berak bere egituraz argibide ugari emon arren, ezer ziurrik ezin geinkela atera Bizkaiko lurzoruak izan dituan aldaketei buruz.*

Aldi haretako Bizkaian lurraren etekinak urriak dirala esaten da, bai lur-lantzeari bai abelazkuntzari jagokozanak:

*Bizkaiko ekoizpenak ez dira handiak. Urtero batzen diranak, garitan, 240.000 anega gari dira gitxi gorabehera; artotan ugariagoa da, gariaren uzta baino bi bider handiagoa da-eta. Intxaaur eta gaztainaren uztaz, sagarrarenaz eta beste fruta batzuenaz atera obi da onurarrik, askotan Iparraldeko merkatuetara saldu eta ban tira handia izan obi dabelako. Mahatsak be emoten deutse etekinik Bizkaiko lur-jabeei, mahastiak zaintzen aparteko abaleginik egin ez arren, 1.000.000*

*bat azunbre ardao upeleratzen da-eta, txakolin izenaz prestatzen dakiena.*

*Ganadu-bazkuntzaz ez dago zer esan handirik: Betiko moldeetan behar-beharrezko neurrietara mugaturik, bedarlekuen urritasuna kontuan izanik, ia ezinezkoa da bizkaitarrak, industria eran, atal hori uztiatzeari ekitea.*

Lur gainekoaz urri eta nahiko eskas agertzen bada be, lur azpikoaz besterik dala esaten da:

*Dana dala, izadia probintzia honekin lurraren gainean aberats eta jori agertzen ez bada be, besterik erakusten deutse, oster, lurraren erraiak arakutzen ausartzen diranei: ez da inongo aboberokeria esatea, nekez aurkitu daitekeela Bizkaian lursailik zain aberats-aberatseko meategiak ez dituanik; gebietan burdin meatzeak dira, eta industria borretan lanean dihardue bertakoak antzina-antzinarik. Eraikuntzarako marmol eta harrien harrobi ugari eta aberatsak be badira.*

Bizkaitarrak, tradizioz, lurra lantzen, meategietan eta itsas nabigazioan jardun dabela dinosku XIX. mendeko paperezko lekuko honek.

Ez dogu aberats eraikin eta monumentu zaharretan be. Dana dala, baditu kontuan hartzekoak eta estimu handitan diran iraganaren altxor batzuk:

*Bilbok antzinako monumenturik izan ez arren, S. Anton zubia eta Santiago eliza balakotzat hartu daitekez. Ez dakigu noiz eraikiak izan ziran, baina antzina zaharretik darabil Bilbok bere armarrian zubi bat eta gaztelu bat; geroago, gaztelua barik elizaren dorrea agertuko da eta otso bat edo bi.*

Bilboren orduko zabalera eta kaleen egitura eta traza agertzen jakuz ondorengo lerroetan:

*Bilbo Bizkaiko Jaurreriko hiribilduetariko bat da, Kalagorriko Elizbarrutikoa, luzeran 14º eta 30'an eta iparraldeko zabalera 43º y 23'an kokatua: Ibaizabalen ekialdean dago Portugaletetik legoa 2ra, Urduñatik 6ra eta Balmasedatik 5era. Abando eta Begoña Elizateak ditu mugakide. Beraren eskumen-barrutia oso txikia bada be, Jaurreriko hiribilduetatik handiena da biztanlez. Bilbok S. Agustinen itsasadarrak egiten dauan biburgunetik Atxuri auzoraino hartzen dauan luzera 1.600 kanakoa da, eta Mesedetako Kaletik Gurutzekora zebarkatuz doan lerro zuzena 380 kanakoa. Hiribilduko kaleak zirkunferentzia baten erradioak legez eraturik dagoz, eta zirkunferentzia hori ibaiak moldatzen dauala esan daiteke, beraren zentrotzat Zamudioko Portala hartzen dala: gebienak zuzen-zuzen dagoz, ardura handiaz harriztatuak eta harlauzazko espaloiekin. Etxeak, gebienak hiru solairutik gorakoak, onak dira eta hareetariko asko harlanduaz eta marmol leunduaz eginiko aurrealde ederra dabenak. Hogeita hamar kale dira eta beste hamar kale txiki edo zebarkale. Zaharrenak honeek dira: Somera kalea, Artekale, Tenderia (Dendarikale)<sup>1</sup>, Belostikale, Carniceria (Harategi Zahar kalea), Barrenkale eta Barrenkale-Barrena. Segidan beste honeek datoz: Ronda, Pelota, Merced, Cinturería, Nueva, Carrera de Santiago, Torre, Matadero, Lotería, Perro, Sombrería, Víctor, Jardines, Cruz, Calleja, Ascao, Esperanza, Rivera, Arenal, Estufa, Correo, Bidebarrieta eta Santa María. Hiribilduak plaza bi ditu, zabarra eta barria deritzenak: Santiagoko plazatxua, Joan Santuen plazatxua, Zamudioko Portala eta San Nikolas; honeei Sendeja, Iturribide, Kristo, Galtzadak, Zabalbide, Atxuri, Bilbo Zabarra eta Buxaako Artigas auzoak gehitu behar jakez.*

*Bilbok 900 etxe ditu eta biztanleak ez dira 14.000ra heltzen.*

---

<sup>1</sup> Tendería (Dendarikale) izen honek "Donostiako hiru damatxo" kanta ezaguna dakarsku gogora, harako "Errenderian dendari / josten ere badakite baina...". Hau da, ofiziodunen izenak ageri dira kale zaharretan eta kale honetako ofiziodunak jostunak dira.

*Bilbon airea oso bezea da, geletako altzariak lizuntzeraino. Dana dala, herria guztiz sana da; hori ur gazia ber-bertan izateari, euriei eta batez be hiria ondo aireztaturik daukien eta ur geldiak egotea eragozten dabon haize-korronteei esker da.*

Bilboko parrokiei eta hainbat ordena erlijiosotako komentu eta elizei erreparatu deutset gero:

*Bilboko parrokien banaketa On Joan Salazar Kalagorriko Elizbarrutiko Gotzainak egin eban; aldi baretatik 1833ra arte bost parrokia ziran; izan be, urte horretan banatu zan Begoñako monasterioko eliza.*

*SANTIAGO. Ezbai barik antzinakoena da: ez dakigu noiz fundatua dan; 1379an handitzen hasi ziralda dakigu bakarrrik eta 1716an eraiki zala dorrea eta, jausiko ete zan bildurrez, 1817an eraitsia izan zala. Hiru babearte ditu, sei zutabek eusten deutsela, hamabiru kapera dagoz; 183 oineko luzera dauka eta 92 oineko zabalera, gurutze greziarraren forma. Harrinabarrezko aurrealde nagusia 1650ean eraiki zan. Basilika izena dauka, eliza honetan bateatua zan On Frantzisko Gardoki Kardinalaren eskariz Pio VII.a Aita Santuak emonda.*

*Santiagon ez dago aparteko aipamenik merezi dauan margolan ez irudirik, Paret-ek pintaturiko munumentua izan ezik; hau oso kontuan hartzekoa da egina dagoen moduagaitik. Gauza sakratuetatik berariaz deskribatzea merezi dau Garin zilarginak eginiko kustiadiak.*

*S. ANTONIO ABATA. Hiribilduko antzinako gazteluaren oinarriak ziran baitzen gainean eraikita dago, Ibaizabalen ertzean; gaztelua 1366an bota eben. Lehenengo meza 1433ko maiatzaren 5ean kantatu zan. Elizaren estiloa gotikoa da, 93 oin luzeran eta beste hainbeste zabalera dituan hiru habearterekin. Harritzko dorrea 1775ean berreraiki zan.*

*SAN JOAN. Eliza hau, Jesulagunen Ikastetxearena izan zana, Diego Gorgollas jaunak fundatua da 1604. urtean; 117 oin ditu luzeran eta 60 zabaleran. Jesusen Lagundia galdu zanean, parrokia biburtu zan 1772an. Elizaren aurrealdea oso ona da.*

*Aldare nagusia zutabe urreztatuekin eta horma nagusian ezarriak diran gainerako zortzi aldareak nabiko onak dira; ban erdi-mailakoak baino hobeak diran margolanak dagoz. Parrokia bonetan badira, aldare nagusiko margolanez gainera, honeek baino estimu txikiagorik merezi ez daben zurezko biru eskultura, Ama Doloretakoaren, San Joan Bataiatzailearen eta San Joan Ebanjelariarenak.*

*SAN NIKOLAS BARIKOA. Marinelek 1500ean egin eben ermita baten fundatua, 1756. urtean biburtu zan parrokia. Lau-rogel mila dukat kosta zan. Elizak egitura biribil antzekoa dauka, 108 oineko luzera eta 92ko zabalerarekin; intxaurrondoaren zurez eginiko bost aldare, santuen eskultura bikainak dituela, batez be San Lazarorena, Mena eskultore ospetsuaren lana.*

*Tenplu bonen kokapena dala-eta, dirudienez, arkitektoak bere gomuta betiko itzi nahi izan eban fatxadan, baina ez eban lortu gogo hori egia biburtzerik, bape gustagarria ez dan eta sormen handirik bako testigantza ukaezina igaro dalako etorkizunera.*

Eta paperezko lekuko zahar honek, Bilbon aldi haretan ziran komentuei buruz be hainbat argibide emoten deuskuz:

*Azaldu ditugun lau parrokiez gainera, Bilbon baziran fraide agustindarren komentu bat, mojen lau komentu eta karmeldarren babes-etxe bat. Komentu boneetatik lehenengoa 1514 inguruan eraikia izan zan, gaur egun hondakin multzo bat baino ez da geratzen jazoera ikaragarrien testigu mutu eta gure arteko gerren monumentu betikoak.*

*Mojen komentuetatik gaur egun irauten dabena Esperantzakoa, bere izeneko kalean dagoana eta San Agustinen Erregelak jarraitzen dauana, eta Gizakundekoa, Atxurin, moja domingotarrena.*

*Karmeldar Oinutsen Babes-etxea Posta Kalean zan, 1618an fundatua; hiru erlijioso bizi ziran han eta Santiago elizan egunero aitortzak entzutera joan beharra euen.*

*Abando Elizatean be, Bilboko ateetan, bazan frantziskotarren komentu bat, "Imperial" titulua eukana; bemen 100 erlijioso bizi ziran eten barik.*

*Eliza aparta eta eder-ederra zan. 1501 inguruan hasi ziran eraikin hau egiten. Karlos V.a Enperadoreak bere Inperio Armatzak erabiltzeko baimena emon eutsen. 1808an su emon eutsien frantsesak eta, frantseseta amaitu zanean berreraikia izan bazan be, azken jazoera politikoak eragina izan eben, jausteko arriskuan egoteraino.*

Zazpigarren kapituluan onegintza etxeak ageri dira. Atal honetan *Tornuko umeak* izenekoaren atzetik joan jataz begiak. Zer esan nahi dau horrek? Nondik dator izen hori? Ume abandonatuak klausurako mojen tornuan izten ziralako, askotan, hortik *tornuko umeak*, edo *Kaxakoak*, kaxatxu baten izten zituelako izango da; Meñakan eta Mungia aldean *urikoak* esaten jake halakoei, Bilbotik edo uritik etozala uste zalako, ziur asko. Dokumentu hau euskarara itzultzerakoan, "niños de la inclusa o niños expósitos" *tornuko umeak* itzuli dogu:

*TORNUKO UMEEN ETXEA. Karitateko Batzorde Laguntzaile batek kudeatzen dau eta Esperantza kalean kokaturik dago. 1796ra arte Bizkaiko Tornuko Umeak Zaragozako Hospital de Gracia deritzanera eroaten zituen, baina asko biltzen ziralako ikusirik, Kalagorrira eroatea erabaki zan; hori 1806ra arte, aldi horretatik aurrera Bizkaiko Foru Aldundiak bartu eban ha-*

*reen ardura. Ume errukarri honeen lehenengo eta prisazko uneetarako Bilboko etxean inude batzuk dagoz, bularra emotera baserrietara bidaltzen diranak. Gaur egun 674 tornuko ume edo uriko dagoz, 400.000 erreal inguru kostatzen diranak.*

Bilboko eraikin zahar enblematikoen artean, ezin aitatu barrik itzi San Anton Zubia.

*SAN ANTON ZUBIA. Hain antzinakoa izanik, ezin dogu besterik esan Bilboren fundazio aurretik bazala baino. Oso sendoa da eta hiru begi desbardin ditu zirkulu erdikoak zubiular birekin, bata haitz gogorretan oinarritua. Begirik handienak 110 oineko argigunea dauka eta 50 oineko altuera. Igarotzeko eroso ez bada be, merezi dau eraikuntzaren ausartasuna mirestea, baita noizkoa dan kontuan hartzea be; ustez XII. mendekoa da.*

Pasealeku publikoak be erakarri dabe nire begirada eta honen artean Los Caños pasealekuaren deskripzioa izan jat gozonenarikoa:

*LOS CAÑOS. Bilboko beste pasealekuetariko bat, laburra bada be, Los Caños deritzona da. Nerbioi ibaiak bidea ireki dauan bi haitz oso altuen erditik, itsasadarraren parez pare eta Gaztelaranzko norabideari jarraituz, gorago hitz egin dogun hoditeria bikaina dago, harlauza bardinez jantziriko zorua gainean dauala, legoa laurdenekoa luzeran. Bidazia, lehenengoz han oina ezartzen dauanean, harri eta zur geratzen da ikuskizun itzel ba miresten: toki ainube haretan sartu abala, pausoan-pausoan gelditu beharra izaten dau bihotza hunkiturik eta bildutasun geldian gozatu izadi itzel eta era berean latzak sortzen dauan miresmena. Haitz handi basatiak, milaka landare bizkarroiren adar arantzatsuak dariezala, jainkoaren atzamar basatien sare endredatuak eta baita Morroko eta Porgironeko makal altuen geriza ilunak aire ikaraga-*



*rria emoten deutsie inguru hari, halako bildutasun santu bat eragiteko modukoa, eta horrek guztiak badau bere lilura, hirietako zurrunbilotik ibes, barruko bakea soilik bilatzen dabentzat.*

Eta besterik ez, irakurle, itzultzerakoan nire begian leku egin daben albiste eta irudi zahar politak eskaini nahi izan deutsudaz. Atsegin izan badituzu, nire ahalegintxua ondo sariturik geratzen da.

*Luis Baraiazarra Txertudi*